

LAP BERRIKUNTZA JARDUNALDIA

“PREBENTZIO-KULTURA. ZERO IKUSPEGIA”

Bilbo, 2019ko apirilaren 3a.- Osalaneko zuzendari orokorrak, Alberto Alonsok, parte hartu du gaur goizean “Prebentzio-Kultura. Zero Ikuspegia” kanpainari buruzko LAP berrikuntza jardunaldian, UPV/EHUko Bizkaia Aretoan.

Hainbat enpresatako arduradunekin batera -hala nola Aqualia, Galletas Artiach, i+3, Siemens Gamesa, SNA Europe edo PrevenControl- asko izan dira landutako gaiak: “prebentzio-kultura” lan-ildoaren oraina eta etorkizuna, prebentzio eraginkorrean hobetzen laguntzeko “zero ikuspegia” estrategia eta, esperientzien eta tresnen benchmarking bat aurkeztu dute segurtasunean eta osasunean kultura-trantsizioa errazteko.

Alonsoren hitzetan, Osalanek ahalegin handia egiten du sakabanatzen laguntzen gizarte batek solidarioa, iraunkorra eta garatua izan nahi badu, eta produkzio-sare berritzailea eta lehiakorra izan, bereziki sustatu eta bultzatu beharko dituela lan-jardueran ikuspegi gizalegezkoago batekin lotutako alderdiak.

Idea eta helburu horiek guztiek bat egiten dute zeharo “zero ikuspegia” kontzeptuarekin. “Zero ikuspegia” Gizarte Segurantzaren Nazioarteko Elkarteak (GSNE) ezagutarazi zuen Singapurren, 2017 Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Munduko Kongresuan. Laburbilduz, lanarekin zerikusia duten istripuak, gaixotasunak eta kalteak saihesgarriak direlako uste osoa du zero ikuspegiak.

Horretarako, “Zero Ikuspegia” kontzeptuak prebentzio ikuspuntu bat proposatzen du segurtasun, osasun eta ongizate dimentsioak laneko maila guztietan egon daitezen, parte hartzen duten alderdi guztien konpromisoarekin batera. Osasunak eta segurtasunak beharrezkoa izango dute lidergoa; izan ere, hobetzeko, gastuak handitu baino

garrantzitsuagoa da zuzendaritzak koherentziaz zuzentzeaz gain, konfiantza-giroa eta komunikazio irekia sortzea enpresaren maila guztietan, horri esker sustatuko baitu alderdi guztien ekarpena eta parte-hartze aktiboa.

Beste ezaugarrietako bat malgutasuna dugu, alderdi guztientzat onuragarria izango dena, gobernuentzat ez ezik munduko edozein txokotako segurtasun eta osasunerako erakundeentzat ere, bai eta edozelako tamaina edo jarduera duten enpresentzat ere bai.

“Munduan 340 milioi istripu dugu urtean; ia 2,8 milioi hil egiten dira (0,38 milioi istripuak direla kausa eta 2,4 milioi gaixotasunak direla kausa); munduko BPGaren ia %4 galdu egiten da lan-istripuak eta -gaixotasunak direla eta. Arrazoi nahikoak dira pertsonen prebentzioa izan dezaten helburu, ez bakarrik langileak diren heinean, baizik eta alderdi guztietan, lanean eta eguneroko bizitzan” izan dira Alonsoren hitzak.

“Zero ikuspegia” kanpaina lagungarria egin dakiguke bide horretan, helburua baino prozesua baitugu; prebenitzean jarduteko ikuspegi-aldaketa. Prebentzio-kultura bat ezarri nahi du, barne duena, arestian aipatu moduan, segurtasuna eta osasuna laneko ongizate gisa”, esanda bukatu du Osalaneko zuzendari nagusiak.

